

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2978

*1132/2020 EBAZPENA, uztailaren 3koa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Miren Edurne Martínez Ayuso andrea zuzendariorde mediko (Arreta Integratuko Zuzendaritza) izendatu den, izendapen askez, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan.*

746/2020 Ebazpenaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtoko ESlan zuzendariorde mediko (Arreta Integratuko Zuzendaritza) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Miren Edurne Martínez Ayuso andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESiko zuzendariorde mediko (Arreta Integratuko Zuzendaritza).

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Miren Edurne Martínez Ayuso andrea izendatzea zuzendari mediko (Arreta Integratuko Zuzendaritza), Osakidetzako Bilbao-Basurtoko ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko uztailaren 6tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Bilbao-Basurtoko ESlari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko uztailaren 3a.

Bilbao-Basurtoko ESiko zuzendari gerentea,  
EDUARDO MAIZ OLAZABALAGA.